



TRIK:

AKI-NAKI
POXPOLIÑA
JOLAZ-ABEZTIAK
LENENGO INGUÁZTIA

M-21263

R-11847



Gona goñitxu

*Jesus! au poxa nereca
Gona goñi onekin
Begira zeñen poliki
dagon aloz oiekin.*

*Aizeak jotzen duanean
ikurña bait-du iduri*

*...trinka-trinketa
trinka-trinki....
nere gona goñi;
gorontz orlegia eta....
...trinka-trinketa
trinka-trinki....
gorontza orlegia eta
gona goñi.*

Jesus!

*Zelaietan lora danean
gona det biltzeko saski.*

...trinka-trinketa....

Jesus!

*Negañez asten naizenean
det ai!
gona malko-zapi.*

...trinka-trinketa....

Jesus!

*Eudi bada nere bidean
gona det eudi-aterki.*

...trinka-trinketa... ..

Poxpoliñaren Ereserkia

Pra.. Pra.. Pra.. Pra..

*Poxpoliñak gatoz
pozez onera
eusko jolas edeñak
zabaldutzera.*

*Eusko jolasaz alaitu
euzkera ulsez mintzatu
Euzkadi maite gure aberria
guk biardegu azkatu.*

Pra..Pra..Pra..Pra..

*Poxpoliñak gera
zorionean
eusko jolasen alde
gabiltz lanean.*

Eusko jolasaz alaitu...

Pra.. Pra.. Pra..

*Poxpoliñak aupa
jolas jatoñak
ontan jolasten dira
aur euskotañak.*

Eusko jolasaz alaitu....

Pra.. Pra.. Pra..

Euzkadiko Mendiak

Orimendi tontoŕeko pagoaren puntan,
puntaren-puntan, Ori'ko txoria kantari:
txiruliruli-txiruliruli
nork kantatuko ote-du soñutxo ori.

Alzkoŕi'ko tontoŕeko arantzaren puntan,
puntaren-puntan, Erbi-iñudea dantzari
trikitrikiti-trikitrikiti,
nork dantzatuko ote-du dantza ariñ ori.

Anboto'ko tontoŕeko arkaitzaren puntan,
puntaren-puntan, Sorgiñak kontu kontari:
ujujujuju-ijijijiji
nork ixilaziko ote-du algara ori.

Aralar'ko tontoŕeko Laŕunaŕi puntan,
puntaren-puntan, Pernando ta bertzolari:
zuk neri ziri, nik zuri ziri,
iñor onduko ote-du ziriket'ori.

Gorbeia'ko tontoŕeko Gurutzaren puntan,
puntaren-puntan, artzaitxo bat albokari:
ñiruñiruñi-ñiruñiruñi,
nortzuk sortua ote-da soñutxo ori.

Altobiskar tontoŕeko lepo-lepoan, lepo-lepoan,
Eŕoldan turutalari:
tuturututu-tataratari
Eŕoldan alpeŕik duzu turut'ots ori.

BAXAKA

BATXUEK: Baxakaran beltza ondurik ondo;
ondo eta goxo arana.

DANOK: *Tra-lara-la, tra-lara-la.*

Agur Xabiertxo; nora zuazki nere seme maite-laztana? Tren mutur-beltz txistuka dago; agur aita et'agur ama.

Tra-lara-ra, tra-lara-la.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Morotegira joan bear det; agur aita et'agur ama.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Orain ardiak nork zaituko ditu nere seme maite-laztana?

Tra-lara-la, tra-lara-ra.

Morotegian zer galdu dezu, nere seme maite-laztana?

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Lagunduko die zeruko Jaunak agur aita et'agur ama.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Erege Jaunak beartzen gaitu; agur aita et'agur ama.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Eta soroak nork landuko ditu nere seme maite laztana.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Sorbaldan zer dezu armazar ori nere seme maite-laztana?

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Lagunduko die zeruko Jaunak agur aita et'agur ama.

Tra-lara-la, tra-lara-ra.

Gudari nua; ez negar egin; agur aita et'agur ama.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Zeruko Jaunak madarika beza gudarizka sortu zuana!!

Tra-lara-ra, tra-lara-ra

Aitak Donosti'ra lagunduko nere seme maite-laztana. dizu,

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

Baxakaran beltza ondurik ondo;

ondo eta goxo arana.

Tra-lara-ra, tra-lara-ra.

AURTZO DANOK

Aurtxo danok alkarturik, jolastutzera orain goaz bai, zorientasuna ta poztasuna lagun degula, txori politak bezin ederki abestuaz, alaituaz, zabaltzia nai genduke zueri gure poztasuna, biotz guztiak beterik pozes t'atzegiñez nai badezute (orixe bai) jolas onetan (orixe bai) alkarturik abes deigun, nai badezute (orixe bai) ozte guria (orixe bai) jolasekin poztu deigun.

Kiri - kiri - ken

Ez da gauz eřaza
kiri-kiri-ken
kiri-kiri-ken
ez da gauz eřaza
ama gezurtatzen.

Kiri-kiri-ken-du
dana jakiten du
kiri-kiri-kik
zelan ba-dakik?
kiri-kiri-ko, ko-ko-ko
atxikiñak esateio
kiri-kiri-ko, ko-ko-ko
dan-dan-dana esateio.

Eskola-igesi,
kiri-kiri-kaiz
kiri-kiri-kaiz
eskola-igesi,
ortik joaten banaiz
Kiri-kiri-ken-du...

Eztia ontzitik
kiri-kiri-ket
kiri-kiri-ket
eztia ontzitik
atzaz osten badet
Kiri-kiri-ken-du...

Kaiera igari
kiri-kiri-ket
kiri-kiri-ket
kaiera igari
iges eiten badet

Kiri-kiri-ken-du...

Otoitzak eiteke
kiri-kiri-ken
kiri-kiri-ken
otoitzak eiteke
banaz lotaratzen.

Kiri-kiri-ken-du...

Mutilok buřukan
kiri-kiri-ka
kiri-kiri-ka
mutilok buřukan
ibilten ba gera.

Kiri-kiri-ken-du...

Kato politen kontua

BATZUEK: *Oraingo aldian egingo degu
kato politen kontua.*

DANOK: *Lara-la, doran-Donian-don.*

Kato beltzak bi ume ditu,
biak dira bel-beltxak;
bata neretzat izango da ta
bestea beñiz, zuretzat.

Lara-la, doran-Donian-don

Kato txuririk ez det nai eta
gorde ditzazu zuretzat;
kato txuririk ez det nai eta
zer izango da neretzat?

Lara-la, doran-Donian-don

Kato beltzik ez det nai eta
gorde dezazu zuretzat;
kato beltzik ez det nai eta
zer izango da neretzat?

Lara-la, doran-Donian-don.

Kato goñiak sei ume ditu,
seirak goñi-goñiak;
erdik neretzat izango dira,
zuretzat beste erdiak.

Lara-la, doran-Donian-don

Kato txuriak lau ume ditu,
laurak txuri-txuriak;
bi neretzako izango dira,
zuretzako beste biak.

Lara-la, doran-Donian-don.

Kato goñirik ez det nai eta
gorde ditzazu zuretzat
kato goñirik ez det nai eta
zer izango da neretzat?

Lara-la' doran-Donian-don.

Asto zar bat ba'det nik eta
ez det bear neretzat;
kato politik nai ez duanak
astua beza beretzat.

Lara-la, doran-Donian-don

Popatxoak nana gure umetxoak

*Mutil txiki-txiki-txikia zera zu
ezpaitezu jaten ixil ta gogotsu.
Mutil aundi-aundi egin nai ba dezu
dan-danetik asko jan beazu.*

Popatxoak eta babak bazkaritan,
talo ta esne beroa aparitan.

*Au ailatxondako, au amatxondako.
Au Kepa'txondako, au Miren'txundoko
jo azlen dijoa, gure mutikoa!*

Mutil txiki.....

Katilu bete kapesne gosaritan,
koko ta papa biguna askaritan

Au ailatxondako.....

Mutil txiki.....

Tun-tun barik, geldi, xintxo ta ixilik,
jan bear da dan dan, dan-dan dan, danetik

Au ailatxondako.....

Rataplan

*Rataplan guda-mutil taldea, rataplan
gudara dijua berekin izkilua
sorbaldan darama.*

Ora turutan otsa taratatara taratatara
Turutaren otsean gora gora ikuin maitea.

Rataplan.....

Goazen azkar gure Aberian etsaiak zapal-
(tzera.

Mingari da etsaiak iltzea
baña Aberia da auena.

Ran-plan-plan, ranplanplan, ranplanplan
rataplan, rataplan,

Rataplan.....

Tatata-ratata, tataratata tataratatata.

Lenengotxuori

*Lalaralala-lalalaralalara
lalaralala-lalaralala.*

Lenengotxuori, punta-biatz ori,
beste guztien artian **txikiña** dok ori.

Lalaralala....

Bigaréntxuori punta-biatz ori,
bezte guztien artian **nagiya** dok ori.

Lalaralala....

Irugaréntxuori punta-biatz ori,
beste guztien artian **luzla** dok ori.

Lalaralala....

Laugaréntxuori punta-biatz ori,
beste guztien artian **plzkofa** dok ori.

Lalaralala....

Boskaréntxuori punta-biatz ori,
beste guztien artian **lodiya** dok ori.

Lalaralala....

Irule abestia

NESKAK

Abestu gaur ditzagun
Liñuan nekeak
Ezpata onen otsak
Izanik latzenak.
Alkar ondo artuta
Soñua neurturik
Gorputzeko nekeak
Uzteko arindurik.

Ura ipintzen dute
Dan-dana loiturik
Bazter guzietara
Atsa zabaldurik.
Baña ikusten dira
Kin-klon txantxikuak
Buruak aterarik
Egiten soñua.

Arikatzen ditugu

Eruki gaberik
Uzten ez diegula
Guk ezur osorik.
Ispi-txar ta erbatzak
Zaizkie ateratzen
Eta uzten digute
Nai deguna egiten.

MUTILAK

Zera neskatila
Euzkaldun ez ila;
Ez da iñor luñean
Zure bear ezdanik;
Ez atso, ez agure
Ator zuri barik.

Akeřarena

{Akeřa ikusi degu baratzean jaten {Makila › › akeř ori jotzen {Sua › › makil ori eřetzen {Ura › › su ori itzaltzen {Idia › › ur ori edaten {Soka › › idi ori lotzen {Xagua › › soka ori eteten {Katua › › xagu ori ařapatzen {Atsoa › › katu ori jařaitzen {Balbea › › atso ori zemaitzen	Akeřak artoa akeřa ken Makilak akeřa › › Suuak makila › › Uurak suua › › Idiak uura › › Sookak idia › › Xaguak sooka › › Katuak xagua › › Atsoak katua › › Balbeak atsoa › ›
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Baratretik akeřa ken: ken-ken-ken

Txintxin txirikitin txorie

GUZIAK: *Txintxin txirikitin txorie, txoritxo txibiltarie:*

BANAKA:

Erein nuen garie, oso arlo aundie
 uste nuen eun anega imiņa bat zan guztie,
 imiņa bat zan guztie.

Txintxin.....

Miz-miz katu zurie, jaurti nion ařie,
 aren ordez mindu nun atso baten bekokie,
 atso baten bekokie.

Txintxin.....

Atso aren zaurie sendatzera etořie,
 oge sabaian da ageri txindor papar gořie
 txiolaritxo zolie.

Txintxin.....

Txau-txau txakur gořie, jaurti nion makile
 aren ordez jo nuen sutondoko zartaņie
 agur nere gosarie.

Txintxin.....

Gabon-abestia

DAN DAN DAN....

- Dan dan dan .. Maria ta Yosepe Belen'en. (bis) —Dan dan dan ...jo dezagun estalpe onetan;
- Kras kris kras... etxe gabe Gabon izan aren. (bis) —Kras kris kras... sar gaitezen ortxen ilunbetan.
- Dan dan dan ... Nor da emen jauregi onetan? —Dan dan dan ... amabiak Belen'go tolean;
- Kras kris kras... Zein da deika gauko amaretan? —Kras kris kras... aingeruak zeruko atean.
- Dan dan dan ... Eske gabilz gauko ostatuaren. —Dan dan dan... Aintza goian ta pakea emen;
- Kras kris kras... Ostaturik eztago, ba, emen. —Kris kris kris... Jesukristo jaio da Belen'en.
- Dan dan dan ... Nor da emen etxetxu onetan? —Dan dan dan ... Aingeruak dan dan danboliña;
- Kras kris kras... Zein da deika gauko amaiketana? —Kris kris kris... Artzaitxoak kris kris kriskitiña.
- Dan dan dan .. Beartsu bi; edeki eiguzu! —Dan dan dan .. Bart Belen'en eta bart Belen'en;
- Kras kris kras... Aberats bi artuak ditugu. —Kris kris kris... Jaio zaigu Jesus'txo Nazaren.

Kris kris kris... Jaio zaigu
Jesus'txo Nazaren;
Dan danok sar gaitzala
Berak zerura. Amen.

Astoarena

Paradisuko atean, abere danak batean:
pozik zebillzan beren izenak,
Adan'engandik artzean:

Paradisuko atean, abere danak batean.

Ia orain, **kukuñuku**, zuk izena nola dezu?
Esango dizut berealaxe, **olara** esan didazu:
Ondo dago **kukuñuku** zuk izena orla dezu.

Nola da beñiz, zurea, **kuñin-kuñinka** nereea?
Esango diot berealaxe, nereea Jauna **urdea**.
Ondo dago **Jaun-urdea** orlaxe da zurea.

Etoñi ona, **kakari**, nola esan dizut zuri?
Esango diot berealaxe, **oloa** esan dit neri.
Ondo dago **kakakari** orlaxe'san dizu zuri.

Eta zu **lepo-gizena**, nola da zure izena?
Esango diot berealaxe, neri esan dit **zezena**
Ondo da **lepo-gizena** orla da zure izena.

Esne ta adardun gurea, nola dezu zuk zurea?
Esango diot berealaxe, **beya** da Jauna nereea,
Esne ta Adardun gurea orla dezu zuk zurea.

Belafi-luze, mukizu, ia zuk bai al-dakizu?
Neri... ¡ai Jauna... aztu... aztu... aztu... egin zait,
(barkatu!
Ondo dago Jaun-mukizu, **astua**, zera gaurtik zu.

Paradisuko.....

Monja - Txuriena

Oraingo aldian esango degu
monja txurien kantua:

La-ra-la, doran-donian-don
La-ra-la, doran-donian-don.

Ama ekatzu jantzi **beltxa**
monja naidet eta nik:
Monja beltzak Mendaron dira,
ez datik ango biderik:

La-ra-la...

Ama ekatzu jantzi urdina
monja naidet eta nik:
Monja urdiñak Begoñan dira,
ez datik ango biderik:

La-ra-la...

Ama ekatzu jantzi **txuria**
monja nai det eta nik:

Monja txuriak Txina'n dira,
batel bat dijoa Pasaitik:

La-ra-la...

Agur amatxo, agur betiko,
ama ez egin negarik...

Agur alaba, agur betiko,
eresatu nigatik:

La-ra-la...

Batel txuri bat Txinara dua,
monja txuriz beterik:
monja txuriz beterik
eta izar eder bat gidari:

La-ra-la...

Soka - Jolasa

Jolastu gaitezen danak soka-jokoan
soka-jokoan, soka-jokoan,
aurtxo euskotañari dagokion eran,
dagokion eran, eusko utsean:
Bat eta bi iru lau eta bost,
amar geiagokin dira amabost.

Bikoak ugari egiñaz alai gabiltzan,
alai gabiltzan, alai gabiltzan,
euskera entzunaz beti jolas guztitan,
jolas guztitan, une danetan:
Bat eta bi iru lau eta bost,
ogei geiagokin dira ogeitabost.

Guk baño biko geiago eiten baituzu,
eiten baituzu, eiten baituzu,
marama apain polit bat izango dezu,
izango dezu, erosten badezu:
Bat eta bi iru lau eta bost,
eun geiagokin dira eun da bost.



Elixebatxu

Elixebatxu, txingo txingo txingo:
Nora zuaz, txingo-brai?

Maitearengana, txingo txingo txingo;
maitearengana, txingo txingo, bai.

Elixebatxu, txingo txingo txingo:
Nun dezu maitea, txingo-brai?

Goiko kameran, txingo txingo txingo;
goiko kameran, txingo txingo, bai.

Goiko kameran, txingo txingo txingo,
iñor esta bizi, txingo-brai.

Goiko kameran, txingo txingo txingo,
Elizatxoa dago, txingo txingo, bai.

Elizatxoan, txingo txingo txingo,
iñor ezta bizi, txingo-brai.

Elizatxoan, txingo txingo txingo,
Kutxatila dago, txingo txingo, bai.

Kutxatilatxoan, txingo txingo txingo,
iñor ezta bizi, txingo-brai.

Kutxatilatxoan, txingo txingo txingo,
Yesustxo bizi da, txingo, bai.

Elixebatxu, txingo txingo txingo:
Nora zuaz, txingo-brai?

Yesustxo'rengana, txingo txingo txingo,
Yesustxo'rengana, txingo txingo, bai.

Elixebatxu, txingo txingo txingo,
Yesustxo'rengana, txingo-brai;
gu ere zurekin, txingo txingo txingo,
gu ere zurekin, txingo txingo, bai.

ITXAS - OLATUAK

Oi, itsas-olatuak!
beti ibili dabilz,
aruntz eta onuntz.
Oi, itsas-olatuak!
urindu ta urbildu, beti bat.
Bantzin, bantzan,
olatu xoroak,
bantzin, bantzan,
gure aizpatxoak
bantzin, bantzan,
barantzin, barantzan,
ariñ etori ta ariñago joan.
Orla gu ere, goiz-goizetik,
salto ta brinko gabilz beti.
Ederki ibiltzen da gora ta bera
itsasoko olatuen antzera.

Oi, itsas-olatuak!
orain aro jaiki,
orain apal bera!
Oi, itsas-olatuak!
oin gora, oin bera, beti bat.

Bantzin.....
jaiki orduko, murmurka
berantz,
orla gu ere gera sari
puztu ta aunditu, gero txiki
Ederki ibiltzen da.....

Oi, itsas-olatuak!
txalupa liraiñen
seaska biguñak!
Oi, itsas-olatuak!
eragin altzoan txalupak!

Bantzin.....

bultza ta aizeztu arin txalupak!
Orla gu ere gabilz beti
amets-txalupa bultza nairik.

Ederki ibiltzen da.....

Oi, itsas-olatuak!
nagiak luzatu
ta etzin ondartzan,
Oi, itsas-olatuak!
luzatu ta etzin ondartzan!

Bantzin.....

luza etzan eta lo ondartzan.
Orla gu ere luze-luze,
etziten gera gero gauez
Ederki egoten da etzinda
luzera
itxasoko olatuen antzera.

Bein juan nintzan merkatura

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen txakur txiki bat.
Txakur txiki orek, au-au-au-au-au ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzat meerkatura, erozi nuen oñar txiki bat.
Oñar txiki orek ku-ku-ru-ku-ku ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen katu txiki bat.
Katu txiki orek miau-miau.miau-miau-miau ;Ai zer gaba pasa
nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen olo txiki bat,
Olo txiki orek ka-ka-ka-ka-ri ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen txari txiki bat.
Txari txiki orek kuñin-kuñin-kuñin ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen txori txiki bat.
Txori txiki orek txi-ru-li-ru-li ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen arkumetxu bat.
Arkumetxu orek be-be-be-be-be ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen txantxiku bat.
Txantxiku orek klin-klon-klin-klon-klin ;Ai zer gaba pasa
nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen txilibitu bat,
Txilibitu orek fi-ru-li-ru-li ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen taanbortxo bat,
Taanbortxo orek tan-ta-ra-pa-ta-tan ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

Bein juan nintzan meerkatura, erozi nuen asto aundi bat,
Asto aundi orek ja-ja-ja-ja-ja ;Ai zer gaba pasa nuen nik.

La-la-la-ra-la

Ogezulo

Goizeko seirak dira;
jaikitzeke ordua da.
Eguzkia ba-dator
dana argi ta dana poz.
Jaiki zaite goizago,
lan-erdi eiña dago.

*Ogezulo, ogezulo,
beli-beli zaude zu lo.*

Ez dakik egunsentian
zein pozgari dan argia.

*Or nun dagon Bartolo,
gau ta egun beti lo.*

*Egon bai; ta guk lan,
ta guk jan, ta yu aberats.*

An zortziren dangadak;
ekin lanari danak.

Eragin besoari,
jo ta keia asper barik.

Gure poz aundiena
izerdi ta lanena.

Ogezulo.....

argatik zaude ain guri,
txari txiki bat iduri.

Or nun dagon.....

Euerdiko adara entzun!
gogoz bazkaldu zagun.

Bai gozoa ogia,
guk-guk irabazia!

Jan danok ase arte,
alperentzat ez bape.

Ogezulo.....

Esnatu, ta:-Au gosea!
-Jan, gura ba dek, oea!

Or nun dagon.....

Ordu biak ba-dira;
goazen beriz lanera.

Nik etxeak zuritu;
Nik burnia bigundu;

Nik euna erabili;
Nik sol-fa-re ikasi.

Ogezulo.....

Ta ni jira bestaldera
beste lo bat egitera.

Or nun dagon.....

Eldu da igandia
artu degu saria

-Lau pezeta.-Ta nik bost.
Ez daukana or konpon.

Ogezulok diru nai,
erantzun giñon:-Ja jai!

Ogezulo.....

ezkila entzun, ta jaiki ez...

Mezia «Ite misa est».

Or nun dagon.....

Noizbait jaiki da alpera;
ezin da ibili bera!

Lanean ikasi gabe,
egin zaigu agure.

Ez diru ta ez lagun,
beti bizi da alargun.

Ogezulo.....

Gaztetan alper ba-zara,
zartzan kalera lotara.

Or nun dagon.....

Gaztetasuna

Gaztetasunak eta garbitasunak dute laguntzat zorientasuna, zuzenak diralako gure buruko asmoak: arpegian baña, bañuan beriz biotz alaia ipintzen digu Jainkoak.

Lalara, larala, lalara, larala, lalara, larala, lalara, larala.

Etxe poxpola

An urñ etxe poxpola, ola, ola,
tximinitik gora kea dariola, ola, ola,
gaintxoan arbola zelai erdian,
ereka pol-pola etxe-atarian:

*Tralala tara tralala,
dana txiki txiki txikia ora.*

Jo atetxoko txiliña, ola, ola,
sut'ondoan kuzkur lolotan mitxiña, ola, ola,
sutan danboliña gaztain eretzen,
lapikoa gal-gal babak egosten:

Tralala tara

Badator etxekoandrea, ola, ola,
begitxoak nir-nir, aoan iria, ola, ola,
zuri-zuri ilea ta bur-zapia,
zuri-goñi umea jaio beria:

Tralala tara

Magaltxoan estutzen du, ola, ola,
urumakatzen du, urumakatzen du, ola, ola,
gure txikitxo egizu lo lo,
lo lo txikitxo bat, apapa gero:

Tralala tara

Lenbiziko aldiz Arrieta Irarkola

Donostia

—

Bigarren aldiz Lopez-Mendizabal Etxean

Tolosa

